

oetan eta ibar parretsuetan gudaren dunbots ikaragarria. Anaiak geran ezkeroz, bizi gaitezen anaiak bezela ongunde chit gozoan: ez dezagun desonratu gure arraza argidotarra odolezko burruka gogorakin. Etsaitasuna kutizia eta urgullua ordaindu bitzate amorioak eta biguntasunak eta Bizkaiaren iskin batetik bestera gure arteko asaretasunak geratuaz, argi egin beza betiko pake baten egunsentiak.»

CLAUDIO OTAEGI-KOAK  
*euskaratua.*

Ondarribian Maiatzaren 9.an 1882.an

## IRU ERREGEEN ADORAZIOA.

*Iru errege Melchor  
Baltasar ta Gaspar  
Belen aldera pizkor  
Dijoaz ta azkar.*

Izar guziz argi bat  
Ara sort-aldian  
Añi ederrik ikusi  
Ez da aspaldian,  
Iru errege datoz  
Jarraika bidian  
Juduen errege non  
Jayo dan galdian.

*Iru errege.....*

Izarra ezkutatu  
Da Jerusalem-en  
Berriz agertu andik  
Atera bezin len:  
Gelditurik estalpe  
Gañian Belen-en  
«Zeruko Erregea  
Dago diyo emen.»

*Iru errege.....*

Gauza arrigarriak  
Arkitu dituzte  
Jesus aini pobre zanik  
Etzuten, ez, uzte,  
¡O Zeru eta lurrak  
Arritu zaitzte!  
Iñork ez gaitu maite  
Jesusek ainbeste.

*Iru errege.....*

Seaskatzat aska bat,  
Kolchoitzat lastuak,  
Bere on eskuchuak  
Osoro oztuak,  
Zerbait berotu arren  
Idi ta astoak;  
¿Nola bizi gindezke  
Onezaz aztuak?

*Iru errege.....*

Inzensu, urre, mirraz  
Beterik eskuak  
Jesusi eskeñiaz  
Errege prestuak  
Ara nola lurrian  
Dauden auspeztuak,  
Zerutar danak berriz  
Oyèi poztuak.

*Iru errege.....*

Jesusek dizkitzute  
Entzun erreguak  
Esan al baño garbi  
Ta ederraguak;  
Bedeinkatuaz zuen  
Asmo ta goguak,  
Agur, zorioneko  
Errege maguak.

*Iru errege.....*